

Baldintza orokorrak

1. Hitzaurrea
2. Definizioak
3. Erantzukizunak eta bermeak
4. Adingabeak
5. Ikastetxeak
6. Erregistroak eta harpidetzak
7. Sarbide-gakoen erabilera
8. Erabiltzaileak edukiak argitaratzea
9. Jabetza intelektuala eta industrialia
10. Aldaketak
11. Jurisprudentzia

1. Hitzaurrea

Irrien Lagunak Kluba, hain zuzen, Euskal Editorea s.l., Elkarlanean s.l. eta Katxiporreta S.Koop pailazo taldeak sustatutako kluba da. Ateak zabalik ditu bere helburuekin bat egiten duten guztientzat.

Euskal Herriko haurrak, gurasoak, hezitzaileak eta hainbat elkarte bildu nahi dituen kluba da; gure haurrak elkarrekin era dibertigarrian eta euskaraz hezteko helburua duena. Ikuspegi hezitzailea izango du, beraz.

Euskal Herrian hainbat pentsaera, kolore eta kulturatako jendea bizi denez, aniztasuna balio bezala aldarrikatu nahi du klub honek.

Euskara: euskaratik eta euskaraz, euskal kulturako esparru guztiak ezagutaraziko dizkie haurrei.

Bizikidetzari buruzko kultura berritzailea sortzen lagundu nahi du, errespetuan eta elkarrizketan oinarrituta, funtsezko balioak sustatzeko: berdintasuna, errespetua, elkarrizketa, parekidetasuna, elkartasuna eta askatasuna.

Ekologia: natura babestea, iraunkortasuna bermatzea eta baliabideak zentzumenez erabiltzea funtsezkoa dela eta kolore guztien artean berdea zeinen ederra eta garrantzitsua den ikusarazi nahi du.

Honako hau (www.irrienlagunak.com) Irrien Lagunak Klubaren webgunea da; alegia, haurren, gurasoen, eskolaren eta klubaren arteko eguneroko harremana bermatu eta parte-hartzea sustatuko duen gunea. Webguneaz gain, Irrien Lagunak Klubak IRRIA izeneko hilabetekaria merkaturatuko du.

2. Definizioak

- **Webgunea edo Gunea:** www.irrienlagunak.com domeinuari dagokion web-orria da.
- **Erabiltzailea:** www.irrienlagunak.com webgunean sartzen den oro izango da erabiltzailea, izena emandako Kidea izan ala ez.

- **Kidea:** Irrien Lagunak Klubean bere izena eman duen oro izango da Kide; nola webgune bidez, hala *Irria* aldizkariko harpidetza eginda edo datuak beste zeinahi eratan emanda izena eman duena, hain justu. Irrien Lagunak Klubeko Kide egiteak zenbait onura ekarriko dizkio Kideari. Onurak era batekoak edo bestekoak izango dira, Kide egiteko erabili duen moduaren arabera; hau da, webgune bidez edo eta *Irria* aldizkariko harpidetza eginda.

Webgunean izena emateko, esaterako, ezinbestekoa izango da 14 urtez beherako haurra edo ikastetxe bat izatea. Haurraren izena gurasoetako batek edo legezko tutoreak eman ahal izango du. Datuak betetzeko, beraz, norbanakoaren postontzira bidaliko den mezu bati erantzun beharko dio gurasoak edo legezko tutoreak, eta halaxe berretsiko ditu datuak.

Gurasoak edo legezko tutoreak berari buruzko datu batzuk ere eman beharko ditu, eta etorkizunean osatzea aurreikusia dagoen "Gurasoen Txokoa" sartuko ditugu horiek. Bestalde, datuok haurraren edozein datu-aldaketa egiteko edo zenbait datu berresteko ere balioko dute.

Ikastetxe batek izena eman ahal izateko, bestalde, ikastetxearen ordezkari batek bete beharko ditu datuak. Datu horiek berresteko, berriz, Irrien Lagunak Klubeko bezeroarentzako arreta-zerbitzutik telefonoz deituko zaio arduradunari.

Irria aldizkariko harpidetza, azkenik, edozein pertsonak, elkartek edo entitatek egin ahal izango du; hartara, Irrien Lagunak Klubeko Kide bihurtuko da, automatikoki.

- ***Irria* aldizkaria:** Irrien Lagunak Klubaren aldizkaria da. Hilabetekaria izango da, eta urtean 10 zenbaki aterako dira. Aldizkaria kioskoan eros daiteke, edo harpidetza eginez gero, etxean jaso. Harpidetza eginez gero, kioskoko prezioarekin alderatuta, beherapena izango du harpidedunak. *Irria* aldizkarira harpidetzeak Klubeko Kide egitea ere ekarriko du, eta besteak beste, klubeko txartela jasoko du harpidedunak. Horratx onurak.
- **Irrien Lagunak Klubeko TXARTELA:** *Irria* aldizkarira harpidetutako Kideek eta horien senitarteko zuzenek jaso ahal izango dute txartela. Txartel honek Elkar dendetako hainbat produktutan beherapenak izateko balioko du, eta

bide beretik, Irrien Lagunak Klubak etorkizunean hitzarmena sinatuz gero, beste zenbait lekutan ere beherapenak izateko aukera egongo da.

- **Irrien Lagunak DENDA:** Webguneko denda da, Elkar Taldearekin elkarlanean sortutakoa, eta bertan erositako produktuak Elkar-en banaketa-zerbitzuaren bidez jasoko ditu erosleak etxean. Dendan erosi ahal izateko, izena eman behar da dendan. Irrien Lagunak Klubeko Kideek zuzenean eman ahal izango dituzte datuak, Klubean emandakoak erabilia. Klubeko Kide ez direnek, berriz, ezinbestekoa izango dute euren datuak ematea, horretarako egokitutako orria beteta. Datu horiek, hain justu, beharrezkoak izango dira dendako produktuak erosi eta etxean jaso ahal izateko.

3. Erantzukizunak eta bermeak

www.irrienlagunak.com, hain zuzen, Irrien Lagunak, SLren jabetzako webgunea da. Erabiltzailea borondatez sartu ahal izango da bertan, eta gainera, sartzea doakoa da. Webgune horretan nabigatzeak esan nahi du erabiltzaileak ezagutzen eta onartzen dituela bertako lege-oharrak, erabilera-baldintzak zein -moduak eta bertako pribatutasun-politika. Erabiltzaileak ez baditu onartzen erabilera-baldintza horiek, eta beraz, ez badie onespina ematen, ezingo du webgune honetan nabigatu.

Edukia

Webgune honetan sartzea eta bertako informazioari zeinahi erabilera ematea, hain zuzen, erabiltzailearen eta soilik erabiltzailearen erantzukizunpekoak izango dira. Hala, informazioa webgunearen helburuarekin bat eginda erabiltzeko konpromisoa hartu beharko du erabiltzaileak.

Erabiltzaileak ezingo dio eman, beraz, legez kontrako erabilerarik webguneko informazioari. Bide beretik, ezingo du webguneko informatika-sistemei kaltea eragin diezaiekeen ekintzarik egin.

Erabiltzaileek galarazita izango dute eduki faltsuak edo okerrak txertatzea edo jakinaraztea; esan nahi baita, ezingo dute eman Irrien Lagunak SL, beste erabiltzaile batzuk edo hirugarrenak nahasteko moduko edukirik. Erabiltzailea bera izango da, horrenbestez, ematen dituen datuekin eragindako kalteen erantzule bakarra.

Ezin da erabili hirugarrenen datu pertsonalik, euren baimenik gabe. Era berean, debekatuta dago hirugarrenen identifikazio-datuak erabiltzea, beste pertsona edo entitate baten tokian jartzeko asmoz.

Irrien Lagunak, SLk ahalegin handia egiten du webgunean argitaratzen diren edukietan akatsik egon ez dadin. Beraz, beretzat gordetzen du noiznahi horiek aldatzeko eskubidea. Irrien Lagunak SLk espresuki uko egiten dio webgune honetako edukietako akats edo hutsegiteengatiko erantzukizunari eta baita

horien egiazkotasun-, zehaztasun- eta gaurkotasun-faltaren ondoriozko kalteengatiko erantzukizunari ere.

www.irrienlagunak.com-ek beste erabiltzaile batzuen iritzi eta ikuspegiak bil ditzake. Webgunearen elkarreraginezko izaera kontuan hartuta, Irrien Lagunak SL ez da erabiltzaileen arau-urratzeen erantzulea izango. Horrenbestez, ezin ditu bermatu erabiltzaileek sortutako zeinahi edukiren ziurtasuna, eraginkortasuna eta egiazkotasuna.

www.irrienlagunak.com-ek beste webgune batzuetarako estekak jar ditzake edo bere web-orriko bilatzaile batekin horietarako sarbidea eman dezake. Irrien Lagunak, SLk ez du bere gain hartzen estekatutako gune horietako ezein edukiren erantzukizunik, ezta bilaketan emaitzarenik ere; izan ere, ez du horien gaineko eta horietan eskainitako eduki, produktu eta zerbitzuen gaineko erantzukizunik. Zerbitzu horien helburua, hain zuzen, erabiltzaileei beste informazio-iturri batzuen berri ematea da; horregatik, erabiltzailea soil-soilik bere erantzukizunpean sartuko da eduki horietara, bertan araututako baldintzen arabera.

Irrien Lagunak, SL ez da webgune honen edo bertako edukien erabileratik eratorritako zeinahi ondorio edo kalteren erantzulea izango, informatika-kalteak eta birusak txertatzea kontuan hartuta. Irrien Lagunak, SLk ez du bermatzen webgunean ez dela inolako birusik edo bestelako elementurik izango, kanpoko hirugarrenek txertatutakoak, eta erabiltzaileen sistema fisiko zein logikoei kalteak ekar diezazkieketenak; nolana ere, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, horrelakorik gerta ez dadin.

Irrien Lagunak, SLk beretzat gordetzen du noiznahi, aldez aurretik oharrik edo azalpenik eman gabe, webgune honetako diseinua, konfigurazioa eta informazioa aldatzeko edo ezabatzeko eskubidea, baldin eta beharrezkoa dela irizten badio. Irrien Lagunak, SLk ez du bere bizkar hartuko aldaketa horiek ekar ditzaketan kalteen erantzukizuna. Dena den, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa horien berri emateko.

Erabilgarritasuna

Erabiltzaile eta Kideek www.irrienlagunak.com gunea erabiltzeko beharrezkoak diren tresneria eta aplikazioak eduki beharko dituzte, baita beharrezkoak diren jakintza eta abilezia ere. Webgunearen izaera dela-eta, zenbaitetan, Kideak gurasoen edo nagusi baten laguntza beharko du webgunean ibili eta hainbat zerbitzuz gozatu ahal izateko.

Orokorrean, Gunea IE6 edo berantiarra den nabigatzaileko dago prestatua, eta JavaScript funtzioak, Cookieak eta pop-up leihaskak erabil ditzake. Hori dela-eta funtzio hauek erabilgarri egon beharko dute.

Irrien Lagunak, SLe ezin du bermatu gunea une oro behar bezala ibiliko denik edo erabilgarri egongo denik; bereziki eguneratze-, hobetze- edo bestelako mantentze-lanak egiten diren bitartean. Lan horiek, hain zuzen, Guneko kudeatzaileek beharrezkotzat jotzen dituztenean egingo dira.

Irrien Lagunak, SLk ez du bere bizkar hartuko zerbitzuaren denboraren erabilgarritasun- edo iraunkortasun-gabeziatik eratorritako kalteen erantzukizuna.

4. Adingabeak

Webgune hau, batik bat, 0 eta 14 urte bitarteko haurrentzat eta ikasteixeentzat da aproposa. Dena den, etorkizunean baldintza hauek alda daitezke.

Irrien Lagunak, SLk jakin badaki Internetek dituen arriskuak zein diren; batez ere, hurrei dagokienean. Horregatik, ahalegin handia egiten du adingabeek modu seguruan nabiga dezaten bermatzeko.

Irrien Lagunak, SLk haurren guraso eta legezko tutoreei ikusarazi nahi die benetan garrantzitsua dela haurrek sarean egiten dituzten jarduerak gainbegiratzea, nabigazio-lanean haiei laguntzea eta datu pertsonalak (nola haurren berarenak, hala guraso edo tutoreenak) emateak dakartzan arriskuei buruzko informazioa ematea.

Horregatik, webgune honetan adingabe bat erregistratzeko, haurren gurasoetako batek edo legezko tutoreak egin beharko ditu izapideak. Erregistro horrek, beraz, adingabearekiko legezko lotura dutela adieraziko du, eta eurak izango dira, ondorioz, euren kargura dauden adingabeek webgune honi ematen dioten erabileraren erantzule bakarrak.

Legezko tutoreek, azken batean, euren kargura dauden adingabeen kontuak kudeatu beharko dituzte; hala, kontuetara sartzeko, bertan dauden datuak aldatzeko eta adingabeek bertan egindako hainbat aldaketa onartzeko eskubidea izango dute.

5. Ikastetxeak

Webgune honek helburu hezitzaileak ere badituenez, aproposa da ikastetxeentzat. Ikastetxeek, beraz, euren jarduerarekin lotutako zerbitzuak baino ezingo dituzte erabili, webgune honetan.

Ikastetxe batek webgunean erregistratu nahi badu, ordezkari batek egin beharko ditu izapideak. Horretarako, ezinbestekoa da harremanetarako datu bat ematea, sarekoa ez beste bitarteko baten bitartez ere erregistroa egin dela egiaztatu ahal izateko.

6. Erregistroak eta harpidetzak

Webgune honetan sartzeko ez dakar, halabeharrez, datu pertsonalak eman behar izatea. Nolanahi ere, eskainitako zerbitzu ugaritarako beharrezkoa da aldeztatik erregistratzea. Erregistroa segurua eta zerbitzua egokia izan

daitezen, ezinbestekoa da erabiltzaileak hainbat datu pertsonal ematea. Datuak biltzean bertan jakinaraziko zaio erabiltzaileari zer erabilera emango zaien datuei eta nor izango den horien erantzulea.

Irrien Lagunak, SLren hainbat zerbitzutan erregistratzeak edo horietara harpidetzeak esan nahi du erabiltzaileak onartu egiten dituela Irrien Lagunak SLren baldintza orokorrak eta pribatutasun-politika. Era berean, esan nahi du erabiltzaileak espresuki onartu eta baimena ematen diola Irrien Lagunak SLri, bere produktu eta zerbitzuei buruzko edo merkataritza-hitzarmenak sinatuta dituen beste enpresa batzuen produktu eta zerbitzuei buruzko merkataritza-jakinarazpenak bidaltzeko, nola posta arruntez, hala bitarteko elektronikoen bitartez. Jakinarazpenen hartzaileak, nolani ere, baimen hori ezeztatu ahal izango du, noiznahi. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dio fitxategiaren erantzuleari.

6.1. www.irrienlagunak.com webgunean erregistratzea

Webguneko gune pribatura sartzen diren erabiltzaileak erregistratutako erabiltzaileak izango dira.

Erabiltzaile adingabeei ez zaizkie datu pertsonalak eskatuko. Erregistroa egiteko beharrezkoak diren datu pertsonal guztiak zuzenean gurasoei edo legezko tutoreei eskatuko zaizkie.

Erabiltzaileak egiazko datuak, zehatzak eta osotuak emateko konpromisoa dauka, bai erregistroa egitean, eta baita geroko jakinarazpenak gauzatzean ere. Hala, horien zeinahi aldaketaren berri emateko erantzukizuna ere izango du.

Erregistro-galdetegietan derrigorrezkotzat jotako eremuak hutsik utziz gero, Irrien Lagunak SLk, beharbada, ez dio erabiltzailearen eskaerari erantzungo.

6.2. *Irria* aldizkarira harpidetzea

Irria aldizkariko harpidetza egiteko eskaera gauzatzen duten pertsonak harpidedunak izango dira.

Harpidedunek, beraz, etxean jasoko dute *Irria* aldizkaria. Bide beretik, kioskoan erostearekin alderatuta, beharpenak izango dituzte; klubeko bazkideak izango dira, automatikoki; eta klubeko txartela jasoko dute.

Harpidedunak, nahi izanez gero, webguneko gune pribatura sartu ahal izango dira.

6.3. Sareko dendan erregistratzea

Webguneko sareko dendara sartzen direnak, hain justu, horixe izango dira: sareko dendaren erabiltzaileak.

Erabiltzaileek emandako datu pertsonalak, dena den, eskatutako produktuak saldu eta bidaltzeko erabiliko dira; eta Elkar Banaketa (Euskal Kulturgintza S.Ak kudeatu eta fakturatuko ditu.

6.4. Buletinetan erregistratzea

Erabiltzaileek borondatez eskatu ahal izango dute klubeko buletineta harpidetza egitea.

Nolanahi ere, erabiltzaileek noiznahi eskatu ahal izango dute zerbitzu horretan baja emateko. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Irrien Lagunak SLra, edo bestela, enpresak horretarako jarritako beste zeinahi bitarteko erabili ahal izango dituzte.

7. Sarbide-gakoen erabilera

Gune pribatura sartzeko gakoak, hain zuzen, pertsonalak, isilpekoak eta besterenezinak dira. Erregistratutako erabiltzaileak gakoak erantzukizunez erabiltzeko eta inori ez jakinarazteko konpromisoa izango du. Euren gakoak erabiltzeko nahiko gaitasun ez duten adingabeei dagokienean, berriz, gurasoek edo legezko tutoreek lagunduko diete kudeaketa-lan horretan. Erregistratutako erabiltzaileak ez dio bere gakoak berri emango telefonoz, posta elektronikoz, webgunearen bitartez (foroa, txata...) edo beste zeinahi bidetatik gakoa eskatzen dion inori.

Irrien Lagunak, SLk gomendatzen du erabiltzaile-gakoa eta pasahitza ez izatea berbera, eta alfazenbakizko karaktereak edukitzea. Erabiltzaileak buruz ikasi beharko ditu bere gakoak, eta ez da komeni edonor sartzeko moduko inolako euskarritan (fisikoa zein informatikoa) gordetzea. Bide batez, komenigarria da aldian-aldian sarbide-gakoak aldatzea.

Garrantzitsua da, saioa bukatu orduko, erabiltzaile bakoitzak bere kontu pertsonala ixtea; hartara, ekipoa partekatzen badu edo toki publiko bateko ekipoa erabiltzen badu (liburutegikoa edo ikastetxekoa) ziur egongo da inortxok ere ez duela aukera edukiko bere informazio pertsonala ikusteko.

Gakoa ahazten bazaio, erabiltzaileak Irrien Lagunak SLri jakinarazi beharko dio. Hark gako berria emango dio, automatikoki. Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileari gomendatzen dio sartzera doan lehenengo aldian aldatzeko gakoa. Era horretan, erabiltzaileak erraz gogorarazteko moduko eta baimenik ez duten hirugarrenek nekez jakingo duten gakoa eduki ahal izango du.

Erabiltzailea ohartzen bada norbait era bidegabean edo baimenik gabe dabilela bere sarbide-gakoekin, berehala jakinarazi beharko dio Irrien Lagunak, SLri.

8. Erabiltzaileak edukia argitaratzea

Webgune honetan edozein eratako edukiak (datuak, testuak, bideoak, soinua, argazkiak, grafikoak, mezuak edo bestelako materiala) txertatzen dituen erabiltzaileak adierazi eta bermatu behar du hemen adierazitako baldintzen arabera egingo duela.

Hirugarrenen datu pertsonalak gehitzen dituen erabiltzaileak adierazi behar du pertsona horien baimena daukela datuak argitaratzeko.

Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileei jakinarazi nahi die argitaratutako edukien neurtze-kontrolak egin ahal izango dituztela, eta ezegokitzat jotako eduki guztiak ezabatu ahal izango dituztela, aldezturik ezer esan gabe. Horrek ez du esan nahi Irrien Lagunak, SL denik erabiltzaileek webgune honetan txerta ditzaketen eduki guztien erabateko kontrolaren erantzulea. Irrien Lagunak, SLk ezin du bermatu erabiltzaileek webgune honetan argitara ditzaketen edukien zehaztasuna, kalitatea eta osotasuna. Esan bezala, erabiltzailearen erantzukizuna da webgune honen erabilera-baldintzak betetzea.

Irrien Lagunak, SLk beharrezko tresnak emango dizkio erabiltzaileari, ezegokitzat jotako edukiak salatu ahal izateko: bai "Gaitzetsi" aukera, bai webgune honetako erabiltzailearentzako arreta-zerbitzua. Irrien Lagunak, SLk salaketa guztiak aztertuko ditu, eta horien neurriari buruzko erabakiak hartuko ditu.

Erabiltzaileak, bestalde, webgunea errespetuz eta fede onean oinarritutako irizpideen arabera erabiltzeko konpromisoa hartuko du. Hala, oinarritzko jokaera-arau hauek beteko ditu:

- Ez argitaratu eduki iraingarriak, arrazistak, mehatxatzaileak, indarkeriazkoak, lizunak, hirugarrenen intimitateari erasotzen diotenak edo nolabait ezegokiak direnak; batez ere, adingabeei kalteak eragin diezazkieketenak.
- Ez argitaratu ideologiarekin, sindikatu-afiliaziorekin, erlijioarekin, sinismenekin, arraza-jatorriarekin, sexu-bizimoduarekin, genero-indarkeriarekin eta osasunarekin lotutako datuak edo hirugarrenei edo nor bere buruari erreferentzia egin eta oso sentiberak izan daitezkeen bestelako datuak.
- Ez bidali *copyrighta* duen zeinahi eduki, baldin eta jabearen baimenik ez baduzu.
- Ez txertatu sustapen- edo publizitate-edukirik.
- Ez bidali beste erabiltzaile batzuei baimendu gabeko jakinarazpenak (spam).

Irrien Lagunak, SLk beretzat gordetzen du erabiltzaile baten kontuari baja emateko eskubidea, baldin eta ohartzen bada berau modu desegokian erabiltzen duela; bai honako baldintza hauek betetzen ez dituelako, bai garrantzizkotzat jotzen duen beste zeinahi arrazoi dela tarteko.

Irrien Lagunak, SLk webgune honetako erabiltzaileei gogorarazi nahi die webgunea bera haurrentzako dela hein handi batean; horregatik, bertan argitaratutako eduki guztiek erabiltzaile mota horri egokitutakoak izan beharko dutela.

9. Jabetza intelektual eta industrialak

Webgune honen jabetza-eskubideak, eta baita bertako orrialde, pantaila, informazio, itxura zein diseinu, produktu eta zerbitzu, marka, logo, lelo eta gainerakoen jabetza-eskubideak ere, Irrien Lagunak SLrenak dira, non eta ez den bestelakorik adierazten.

Erabiltzaileek webgune honetan argitaratzen dituzten eduki guztiak ere Irrien Lagunak SLren eskubide eta lizentziapean geratuko dira; hala, azken honek datu horiek erabili, erreproduzitu, aldatu, egokitu, argitaratu, itzuli, horietan oinarritutako lanak sortu, banatu, egikaritu eta eduki horiek erabat edo hein batean erakutsi ahal izango ditu, erabiltzaileak ustiapen- edo dibulgazio-modu horren truke inolako ordainik eskatzeko aukerarik izan gabe. Erabiltzaileak adierazten baitu modu publikoan txertatu dituela eduki horiek; sekula ez, isilpean.

www.irrienlagunak.com webgunean sartzeak edo bertan nabigatzeak ez du esan nahi, inola ere, Irrien Lagunak SLk bere jabetza intelektual edo industrialaren eskubideei uko egiten dienik, edo erabiltzaileari bere erabilera pertsonalerako utzi edo baimena (erabatekoa edo hein batekoa) ematen dionik.

Norbaitek lan horiek baimenik gabe erreproduzitu, banatu, merkaturatu eta eraldatzen baditu, Irrien Lagunak SLren jabetza intelektualaren eskubideak urratuko ditu.

Erabiltzaileak webgune honetatik gauzak jaisten baditu (betiere, Irrien Lagunak SLren baimenarekin), erabilera pertsonalerako baino ez ditu jaitsiko; sekula ez, merkataritza-erabilerarako. Beraz, eduki horiek ezingo dira legez kontra aldatu, alokatu edo erabili.

Erabiltzaileak webgune honen titulartasunari kalteak eragingo lizkiokeen zeinahi ekintza ez egiteko konpromisoa hartuko du. Webguneko informazioa baimenik gabe erabiliz gero, edo titularren jabetza intelektual eta industrialaren eskubideei kalteak eraginez gero, dagokien lege-ekintzak egikaritu ahal izango dira, eta hala badagokio, hori egikaritzetik eratorritako erantzukizunak bete beharko dira.

10. Aldaketak

Baldintza hauek guztiak aldatu ahal izango dira, baldin eta Irrien Lagunak SLk noizbait egokitzat jotzen badu; bai lege-aldaketei egokitzeko, bai bestelako hobekuntza batzuk egiteko. Aldaketa horiek indarrean egongo dira webgune honetan argitaratzen diren unetik aurrera. Irrien Lagunak SLk eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa guztien berri emateko.

11. Jurisprudentzia

Irrien Lagunak, SLren eta erabiltzailearen artean sortutako harremana, hain zuzen, aplikatzeko modukoa den legediari eta eskumena daukan jurisdikzioari

buruz indarrean den araudian xedatutakoak arautuko du. Nolanahi ere, araudiak aurreikusten badu aldeek eskumen baten mende jarri behar dutela, Irrien Lagunak SL eta erabiltzailea, dagokien beste zeinahi eskumeni espresuki uko eginda, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien mende jarriko dira.